

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 436/2019 Erabakia, uztailaren 10ekoa. Onestea Ana María del Val Sancho andreak Orokorren Zerbitzuen zuzendari postua uztea egindako zerbitzuak eskertuz

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 20ko 864/2016 Erabakiaren bidez, Ana María del Val Sancho izendatu zen, Zerbitzu Orokorren zuzendari lanpostuan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak 9. eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailetako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Ikusi da Ana María del Val Sanchok aurkeztutako ukoa erakunde honetan beste lanpostu baterako izendatua izatearen ondorioz; beraz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ana María del Val Sancho Zerbitzu Orokorren zuzendari kargutik kentzea, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko uztailaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR